

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

501/2026 Erabakia, uztailaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugaketari

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 4ko 328/2026 Erabakiaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruen mugaketari, Vitoria-Gasteizko udalerrirako dagokionari, udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren berrikuspenaren behin betiko onespenera eragindako aldaketak jasotzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 11. artikuluen 4. apartatuaren arabera, Arabako Foru Aldundiak entzunaldia eman behar die dagokien udalei, gehienez ere 15 eguneko epean egoki jotzen dutena jakinaraz dezaten. Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren inguruan.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Vitoria-Gasteizko udalerriko hiri ondasun higiezinaren lurzoruen eta eraikuntzen balioztapen txostena.

Horren ondorioz, hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa eman behar zaie udalerriko hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren foru diputatu arduradunak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea, erantsitako planoekin bat etorritik, ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruen mugaketaren aldaketari, Vitoria-Gasteizko udalerrirako dagokionari, udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren berrikuspenaren behin betiko onspenera eragindako aldaketak jasotzeko.

Bigarrena.- Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3. artikuluen 2.b) apartatuan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten herrigunetik kanpoko lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena.- Hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa ematea udalerriko hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Laugarrena.- Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie, Hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bosgarrena.- Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari salduenetan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Agiria Vitoria-Gasteizko udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak 11. artikulua 5. apartatua eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA